



Iturgintzaren munduan espezializatzeko aukera ere ematen du zentroak. HITZA

Lan mundurako atepak, zabal-zabalik Pasaia OLHUIIn

Sukaldaritzan zein iturgintzan trebatu eta ikasten jarraitzeko edota lan mundurako salto egiteko aukera eskaintzen ditu Pasaia Oinarriko Lanbide Heziketako Udal Institutuak.

Pasaia Oinarriko Lanbide Heziketako Udal Institututik pasatzen diren gazteek lan mundura jauzi egiteko aukera errealak dituzte. 30 urte baino gehiago daramatza zentroak zeregin horretan, batetik, lanbide bat irakatsiz eta Erdi Mailako ikasketak jarraitzeko aukera emanez. Eskarmentua eta esperientzia badute horretan zentroko irakasleek eta hezitzaileek.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza bukatu ez duten gazteei, bi urteko ziklo baten bitartez, bi titulu lortzeko aukera ematen zaie, OLHko eta DBHko titulua, honekin batera lanbide gaineko formakuntza espezifikoa jasoko

dituzte enpresetan egiten dituzten praktikaldien bitartez.

Aurre matrikulazioa

Trintxerpeko Bidasoa kaleko 1-3 helbidean dagoen OLHUI zentroan bi heziketa ziklo doako eskaintzen dituzte. Etxebizitzan Mantentze-lanak (Iturgintza- Beroa) eta Sukaldaritzaren eta Jattetxe arlokoak. Horietan izena eman dezakete 15 urtetik gorako gazteek maiatzaren 6tik 24ra, biak barne.



Zuzenean zentroa ezagutu nahiko balitz bisitak hitzartu daitezke telefono honetan **943 404894** edo **olh-fpb@pasaia.net**.



Sukaldaritzaren eta ostalaritzaren arloko ikasleak, sukaldean, kuzinatzen. HITZA

Pasaia zentroak lan mundura salto egiteko benetako aukerak ematen dituela berretsi dute dozenaka ikasleek azken hamarkadetan. Azken urteetan Pasaia institututik pasatu diren gazteei jauzi hori egikaritzeko aukera eman diete Donostiako NH Arantzazu hotelean. Bertako sukalde buru Martin Aristondok aipatu du urtero kolaboratzen dutela Pasaia zentroarekin, eta oso pozik dagoela jaso dituen ikasleekin. «Hainbat ikasle jaso ditugu azken urteetan, hamar urte inguru daramagu Pasaia zentroarekin kolaboratzen, eta oso pozik gauden», aitortu du. Hotelera iristen diren lehen egunetik, «bete-bete» sartzen direla aipatu du: «Sukalde baten egunerokoa irakasten diegu, bete-betean sartzen dira. Bizitza erreal zer den ikasten dute, ikasitako hori biribilduz, ogibidea profesionalizatuz».

Aristondok aitortu du ikasleak «gogotsu eta motibatuta» heltzen direla Pa-

Benetako jauzia

Pasaia OLHUItik pasatu diren gazte askok kontratu bat lortu dute berehala zentroarekin hitzarmena duten enpresetan. Praktikak egin eta jarraian hasten dira lanean gehienak.

saiatik: «Gaur egungo plantillako neska eta mutil bat garai batean Pasaia etorritakoak dira eta ezinbestekoak bilakatu dira taldean».

Aristondorekin sukaldean orpoz-orpoz dabil Isai Aguilera gaztea. Bi urteko zikloa egin zuen Pasaian (2020an), eta zuzenean Donostiako hotelean hasi zen praktiketan. Ogibidea profesionalizatzeko asmoz, erdi mailako gradu bat ateratu zuen ondoren, eta berriz ere Aristondoren sukaldaria izuli da, praktikak eskaini baitzizkion berriz ere hotelak. «Oso gustura nago lanean, sekulako giroa dago. Pasaian ere hala zen, nire lekua zela berretsi nuen. Oso gustura joaten nintzen. Etapa oso polita izan zen, eta gerora eskaintako aukerak ere asko eskertu ditut. Egon nahi nuen tokian nago».

Fongui enpresak ere hitzarmena du Pasaia zentroarekin, bertatik ere ikasle asko pasa dira azken urteetan. «Langile falta izan dugun bakoitzean Pasaia zentrori jo dugu, eta praktikak egiteko beharra dutenean ere, noski, prest agertu gara», aipatu du enpresako buru Pedro Camposek.

Pasaia etorritako guztiekin oso pozik dagoela aitortu du, eta gaur egun lantaldean handik etorritako bi lagun dituela lanaldi osoarekin, eta beste bat praktiketan: «Bi gaztetxo ditut hemen praktikak egin eta geratu zirenak. Oso oso pozik nago haiekin. Batek 4-5 urte daramatza gurekin, eta besteak 6-7 inguru. Ikusi dut aukera onena Pasaia OLHUIrekin elkarlanean aritzea dela».

Zentroko ikasketak bukatu eta bere-

«**Sukalde baten egunerokoa sartzen dira, bete-betean. Bizitza erreal zer den ikasten dute**»

Martin Aristondo
NH Hoteleko sukaldari burua

«**Oso gustura nago lanean; Pasaian nire lekua hau zela berretsi nuen, etapa oso polita izan zen**»

Isai Aguilera
Pasaia OLHUIko ikasle ohia

«**Langile falta izan dugun bakoitzean Pasaia zentrori jo dugu; oso pozik nago ikasleekin**»

Pedro Campos
Fongui enpresako burua

«**Praktikak bukatu eta berehala eskaini zidaten lanaldi osoko kontratua. Oso eskertuta nago**»

Jon Ander Sanchez
Pasaia OLHUIko ikasle ohia

hala hasi zen lanean Fongui enpresan Jon Ander Sanchez gaztea. Lan mundura «zuzeneko jauzia» izan zuela aipatu du, eta oso pozik dagoela antzeman dakioke: «Lau urte inguru daramatza hemen lanean, praktikak bukatu eta berehala eskaini zidaten lanaldi osoko kontratua. Luxua izan da eman didaten aukera, bai ikasteko, eta baita lan egiteko ere. Pasaia zentroko irakasleek lan oso ona egin zuten nirekin, oso eskertuta nago», esan du. X